

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren helburu nagusietako bat da euskararen erabilera indartzea donostiarrei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, sensibilizazioa bultzatuz eta euskara ez dakitenak euskalduntzera erakarriz. Xede horrekin, 2020ko urriaren 13an “Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020-2024” onetsi zen.

Urtero egiten du Euskara Zerbitzuak irabazi asmorik gabeko elkarreentzat dirulaguntza deialdia, euskararen normalizazioaren eta sustapenaren aldeko proiektuentzat, hiru lan lerrotan: auzoetako plan integralak, jarduera zehatzak eta euskararen eguneko egitasmoentzat.

Izaten dira, ordea, Donostian beste ekimen ezohiko edo puntualak, eta egileak ez dira beti izaten irabazi asmorik gabeko elkarreak edo Donostian erroldatutakoak. Ekimen puntual horiek (jardunaldiak, mintegiak, foroak, sari eta ziurtagiri banaketak...) euskararen normalizazioaren ikuspegitik, sarritan berrikuntza proposamenak edo ikerketa ildo berriak ekartzen dituzte.

Euskara Zerbitzuaren iritziz, mota honetako ekimenak bi aldetatik dira interesgarriak: batetik, Donostia hiriarri prestigioa ematen diolako euskararekin lotutako egitasmo bat Donostian izateak eta, bestetik, Donostiarentzat baliagarriak direlako ekimen horietatik atera daitezkeen ondorioak.

Ondorioz, Euskara Zerbitzuari beharrezkoa iruditu zaio aurten ere dirulaguntza lerro hau irekitzea, aipatutako ekimenak Donostian gauzatu ahal daitezen. 16.000 eurotako aurrekontua izango du dirulaguntza deialdiak.

Horiek horrela, Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi-ordezkariek Donostiako Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hauek onar ditzala:

ERABAKIAK

1. Donostian euskararen normalizazioa helburu duten jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdiak egitea.
2. Dirulaguntzetarako 16.000 € bideratzea, eta gastua Euskara Zerbitzuko 2024ko aurrekontuaren 481.03 kontu sailari egozteak.
3. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespena ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

KULTURAKO, EUSKARAKO ETA TURISMOKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA